



ASTEARTITA

2020/02/25

8. urtea, 1.196. zenbakia

107.6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 82 €



LEYRE CARRASCO

TOLOSA GIRO PAREGABEA

Aisialdi taldeen koreografiak ikusteko eguna izan zen atzokoa, eta gaurkoa berriz, azken parodiak ikustekoa eta txaranga doinuak entzutekoa izango da



ANOETA – 28 ETXEBIZITZA

2 ETA 3 LOGELA , GARAJE ETA TRASTELEKUAK
TERRAZA PAREGABEAK ETA MENDIETARA BISTAK



**CONSTRUCCIONES
ABURUZA, S.L.**

Informazio guztia:


KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com/iturtxulo

607 445 484

943 69 02 97

KOMIKIA GORKA SALABERRIA



Jon Miranda Labaien

Txikitatik bizi izan ditu Tolosako inauteriak barru-barrutik Olatz Arrospidek (Leaburu, 1989).

Leaburukoa jaiotzez, Ibarran bizi zara gaur egun. Tolosako inauteriak zure herrikoak bezala bizi dituzu?

Bai. Tolosan bertan ikasi nuen eta han egin nuen lagunartea. Urtean zehar ospatzen diren festa guztietatik gehien maite ditudanak inauteriak dira, sanjoanak baino gehiago.

Noiz huts egin al duzu?

Noizbait oporretara joateko ere baliatu ditut egun horiek. Kanpoan harrapatu izan ninduten inauteriek Madrilen ikasten nuen boladan. Eta orduan bai, nostalgiarekin bizi izan nuen, batez ere, Zaldunita eguna.

Nondik datorkizu zuri inauteri zaletasuna?

Ikastolan ikasi nuen eta han txiki-txikitatik mozorrotzen gintuzten. Gero lagunak han egindakoak ditudanez, haiekin batera mozorrotu izan naiz.

Txikitako oroitzapenik gordetzen al duzu?

Bai. Txilaba jantzita, zezen plazan gogoratzen dut nire burua serpentinak botatzen. Urtero Ostegun Gizenean joaten ginen, eskolatik atera, etxean bazkaldu eta zezenetara joaten ginen.

Inauterietako zein egun duzu gustuko?

Zalantza daukat. Ostegun Gizena edo Zaldunita. Igandea oso egun polita da, goizean goizetik sartzen zara giroan, mozorrotuta. Egun pasa ederra da.

Joaten al zara Dianara?

«Urtean denbora asko pasatzen du jendeak zertaz atera pentsatzen»

OLATZ ARROSPIDE INAUTERIZALEA

Mozorrozalea da Olatz Arrospide leaburuarra. Zaldunitan eta atzo mozorro banarekin atera zen inauteriez goatzera eta txilaba ere maite du, Ostegun Gizenean jantzten du urtero-urtero.



Olatz Arrospidek gustuko du mozorrotzea. ATARIA

Gustatzen zait, bai. Leaburun bizi nintzen mozorrotuta jaisten nintzen, baina orain Ibarran bizi naizela, agian animatuko naiz pijama jantzi eta Dianara joaten.

Mozorro ezberdina jantzten duzu egunero?

Normalean igandean eta astele-

henean bakarrik ateratzen naiz. Asteartita eguna deskantsurako uzten dut. Zaldunitan kuadrillarekin ateratzen naiz eta denok mozorro berdina daramagu. Astelehenean, berriz, norbera bere gisara ateratzen da topatzen dituen trapu eta disfrazekin.

Noiz hasten zarete kuadrillan mozorroa prestatzen?

Aurten Eguberritan hasi ginen pentsatzen. Inauteriak noiz diren, horren arabera, lehenago edo beranduago hasten gara.

Zuek erosi edo prestatu egiten dituzue mozorroak?

Badira batzuk guk oihalak Kilon erosi eta moztu, itsatsi edo josi izan ditugunak. Beste batzuetan, berriz, zuzenean mozorro osoa erosi izan dugu.

Besteentzako josten aritzea ere tokatu izan zaizu?

Bai, jostun bezala aritzen nintzen garaian tokatu zitzaidan. Aisialdi taldeentzako jantziak ere egin izan ditut.

Zeintzuk dira atera dituzuen mozorro gustukoak?

Adibidez, Kinder Buenoz eta hor ateratzen diren jostailuz atera ginenekoa gogoratzen dut. Tamagochiz ere atera gara, artalde jantzi ginen, toreroz eta zezenaz

ere jantzi gara... Denetarik pasa dugu.

Astelehenean atera izan zarenetan zein mozorro klase erabili izan duzu?

Aprobetxatu izan dut aurreko urteetako mozorroren bat ateratzeko. Egia esan, mozorroz betetako kaxa handi bat dugu ahizpa eta biok eta hortik tiraka aukeratzen dugu askotan disfraz.

Momenturen bat aukeratu beharko bazenu zein izango litzateke?

Zezen plazatik txarangak ateratzen diren momentua oso gustuko dut. Zain zaude eta badatozela entzuten duzu. Oso momentu hunkigarria da.

Tabernetan, txosnetan, txarangen atzetik?

Taberna inguruetan ibiltzea gustatzen zait, baina txaranga bat pasatzen denean atarira atera eta saltoka ibiltzea gustatzen zait.

Irudikatzen duzu txarangarik gabeko inauteria?

Ez. Eta ez bakarrik inauteriak, ez dut irudikatzen Tolosa txarangarik gabe.

Zezenik gabeko inauteriak?

Zaila da erantzutea. Zezenen inguruan egindako jaiak dira, txarangak ere bertara joaten dira eta jende asko mugitzen dute. Ondo legoke zezenak sufrituko ez balute... Gaur egun, dagoeneko, ez naiz zezenetara joaten.

Gogoan duzu beheren batek erabilitako mozorroren bat?

Rajoy Tolosatik paseatzen ikusi nuenekoa, adibidez. Irudimen asko dagoela iruditzen zait eta urtean denbora asko pasatzen du jendeak zertaz atera pentsatzen eta gero ideia hori garatzen.

Incansables txaranga izango da, inauteriei hasiera emateaz gain, festa agurtzeko ardura izango duena. Aurretik, ordea, Asteartita luzea dago, inauterietan txarangez gozaten jarraitzeko.

Nekaezinak, festa bera bezala

Josu Artutxa Dorronsoro

Gaixoa ni, eta gaixoa gu. Ordu gutxi barru amaituko dira Inauteriak. Akabo sei eguneko mozerro, irudimen, umore, alaitasun, elkartasun eta soinu festa. Beno, agian soinu askorik ezin izan dugu entzun, dezibelioen arauak eta protestak medio, inoiz baino emanaldi gutxiago ikusi ditugulako karrozen partetik. Ez, ordea, txarangen partetik, eta gaitzerdi! Izan ere, inauterietan ez dago mugarik hauen-tzat, eta ez luke beharko.

Gaurkoa, Asteartita, inauterietako azken eguna da, baina ez da txarangen azken eguna izango. Egun gutxi barru, Piñata igandea ospatuko da, eta egun horretan ere, bi txarangek hartuko dute parte. Poca Tripa txaranga Iurreamendi Egoitzara joango da 11:00etan. Arratsaldean, berriz, zezen festa izango da zezen plazan, Klean txarangak alaitutrik. 16:30ean hasiko bada ere, lehenagoko igoeran eta ondorengo jai-tsieran ere joko du Kleanek.

Baina, ez gaitezen horren bizkor joan. Jada badira urte batzuk, Gure Txokoa elkarteak ez duela festen amaiera iragartzen zuen Sardinaren Hileta antolatzen. Egun, festari ez zaio amaiera ofizialik ematen, baina zein ekitaldi izaten da Asteartita eguneko azkena? Bada, bai. Txaranga baten kalejirarekin amaitzen dira inauteriak. Nola bestela!

MUSIKA, GOIZ-GOIZETIK

Amaitu, bai; baina eta, hasi? Txistulariek emango die hasiera egunari, Alboradarekin. 06:00etan hasi eta ordubete baino gehiago ariko dira. Ondoren, txarangak aterako dira, bakoitza bere elkartetik. Zaila da kopurua jakiten, baina dozena bat txaranga inguruk egiten dute zezen plazarainoko bidea. Bai txistulariek, baita txarangek ere, helburu bera izaten dute: oraindik esna jarraitzen duten inauterizaleak alaitzen segi, eta Pattar Zezenera joateko intentzioz zeuden herritarren iratzargailua izan.

Guztira, bederatzi izango dira, Asteartita egunean parte hartuko



Pattar zezenean burrunba handia sortzen da urtero. JON MIRANDA

duten txarangak: Kabila, Txapel Haundi, Urdina Txiki, Veleta, Arco Iris, Sukalde, Kabi Alai eta San Esteban elkarrekin, eta gauez aterako den Incansables Zaharrak txaranga. Azken hauen-tzat, egun ederra izango da, Inauteriei hasiera eman zitetenez, orain amaiera emateko aukera ere izango dutelako. 23:30ean hasiko dira festetako azken ekitaldia izango denarekin.

Pattar zezena ez da azken zezen festa izaten, baina bertan sortzen den atmosfera oso berezia da. Denetarikoa ikusleak izaten dira; plazako hondarretara, berriz, ausartenak eta non dauden ere ez dakitena sartzen dira; eta azkenik, txarangak izaten dira. Horrenbeste dauden, gerta liteke uneren batean hiru batera jotzen aritzea ere. Ikaragarria da plaza barruan egoten den burrunba. Eta behin bertakoa amaituta, elkareraino joan, eta beste otordu bat egiten dute, beharrezkoa izaten delako egun osoan jotzen jarraitzeko indarrak hartzea.

LAU, BAINA ELKARREKIN

Duela urte batzuk, Asteartita egunean, oso eguraldi txarra egin zuen, eta euria ari zuenez, zenbait txarangek Zerkausira joatea era-

baki zuten. Bertan elkartu zirenean, inauterietako abestiak elkarrekin jotzea erabaki zuten. Askok gustatu zitzaizkien ideia, eta beraz, orain zenbait txarangek hori egiten dute. Hasiera batean, lau txaranga izaten ziren, eta urteren batean, bost izatera ere heldu dira. Aurrerago, eta arrakasta ikusirik, Gure Kaiola eta Berazubi txarangak, Lopez Mendizabal plazan elkartzea erabaki zuten, Astelenita eguneko eguerdian, elkarrekin kantu batzuk jo, txarangen artean laguntasuna sustatu, eta plazan giro berezi bat sortzeko helburuarekin.

Asteartita eguneko bilkurari dagokionez, Plaza Berrian egingo dute aurtengoa, 12:00etan, San Esteban, Sukalde, Arco Iris eta Txapel Haundi txarangek; kalera

ateratzen diren zortzi txarangeatik, laurek, hau da, erdiak. Lehenago, ordea, Kabila txaranga ariko da bertan, sokamuturrari musika jarritz. Euria eginez gero, Berdura Plazan izango da bilkura, eta behin hori amaituta, laurek elkarrekin egingo dute Gaztelako Aterainoko kalejira. Hain justu, Berdura Plazan hasi ziren lehen bilkurak egiten, baina txikia gertatzen zela ikusita, Plaza Berrian egitera igaro ziren.

HELDUKO DIRA BESTEAK

Asteartita arratsaldean ere izango da txarangak entzuteko aukera. Izan ere, 16:00ak aldera, Pla-

za Zaharretik hasita, Zezen Plazarainoko igoera egingo dute, Txapel Haundi, Sukalde eta San Esteban txarangek. Azken igoera. Plazan bertan, ikuskizuna alaitzen izango dira. Azken ikuskizuna. Gainera, kontuan izan behar da, ohiturak agintzen duen moduan, gaur joko duten azken abestia San Juan Zortziko izango dela, inauterien amaiera datorrela eta datozen San Juan festetarako egun gutxiago falta direla iragarritz. Behin kantu hori entzunda, berehala hasiko da Alde Zahar-rainoko jai-tsiera. Hau ere azken jai-tsiera izango da, eta ondoren, dantzaldia egingo dute hiru txarangek, Berdura Plazan, 19:00etan hasita. Azken dantzaldia.

Azken, azken eta azken. Bada, nik ere agurtu behar zaitut. Hau izan duzue inauteri haue-tan, txarangen inguruan idatzitako azken erreportajea. Espero dut guztiak irakurtzeak, inauterietako txarangen inguruan gehiago jakiteko balio izan dizuetela, edota behintzat, txarangen lana zein izaten den ikasteko. Tolosako inauterietan txarangak nahi baditugu, hauek zaindu, errespetatu eta txalotu behar ditugu. Egiten duten lanak, hobe edo eskasagoa delarik ere, erantzun on bat izan dezala, jaso ditzatela entzuleen eskerrak eta zorionak. Etorriko dira txarangen belaunaldi berriak, eta orduan ere, orain direnez oroituko gara.

Bitartean, jarraitu inauteri doinuez gozatzen, helduko direlako besteak.

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Garbiketa lanak. Tolosan esperientzia duen pertsona bat behar dugu, Lizartzako enpresa bat garbitzeko. Lan jarduna astearte eta ostegun goizetan egin beharko luke langileak. Kotxea izatea ezinbesteko baldintza da, baita esperientzia izatea ere. Interesa dutenek dei dezatela 943 67 06 26 telefono zenbakira.





Gazte askok hartu zuten parte atzo Astelenita egunean aisialdi taldeekin. J.M.



Giroa lagun, goiz eta arratsaldeaz gozatu ahal izan zuten gaztetxoek euren egunean. J.M.

Zaletasuna ernatzen

Aisialdi taldeek euren eguna bizi izan zuten atzo Tolosako inauterien barruan; goizean kalejira egin zuten San Frantzisko ibiltokian eta arratsaldean zezen plazara abiatu ziren

Leyre Carrasco – Jon Miranda

Astelenita egun berezia da Tolosan, baina bereziki haur eta gaztetxoentzat. Ume-umetatik inauterizaleasuna ernatzen joateko lana egiten dute aisialdi taldeek eta azken hilabeteetan egindako lanak atzo ikusi zuen argia. Goizean goizetik mozorroak soinean jantzita atera ziren kalera, eguraldi bikaina lagun zutela.

Aurten, mozorroa aukeratzeko orduan, aisialdi taldeek filmak hartu dituzte inspirazio iturri. San Bernardo taldekoek, adibidez, *Coco* filma eta bertan agertzen diren pertsonaiak atera zituzten kalera atzokoan. Ibarra-ko Txiribitu taldekoek, berriz, *Charlie eta txokolate fabrika* pelikula hartu eta horretan oinarritutako mozorroak prestatu zituzten Astelenita egunerako. Koreografiak ere eskaini zituzten atzo Tolosara gerturatutako en aurrean eskaintzeko.

Aladdin pertsona eta haren in-
gurukoak aukeratu dituzte aur-
ten Kirikiño taldekoek. San
Frantzisko ibiltokiaren bukaer-
an filma horretan agertzen di-
ren pertsonaiak ibili ziren dan-
tzan. Eta antzera ibili ziren, Atse-
dena taldekoak ere. Kasu
honetan, Dragoi bola marrazki
bizidunean oinarrituta, pertso-
naia aski ezagunak ibili ziren
dantzan eta saltoka, teleaileko-
en antzera *Kame Hame Ha* mu-
gimendua errepikatuz.

Munduko toki bat ardatz har-
tuta ibili ziren, oster, Ttenttek
aisialdi taldekoak. Taj Mahala-
ren irudia goiburu gisa zutela,
Indiako dantzak eskaini zituz-
ten. Taldean ibiltzen diren begi-
rale helduek eta gaztetxoek kore-
ografia landuak egin zituzten bi-
sitarien gozamenerako.

Txalo artean hartu zuten inau-
terizaleek aisialdi taldeetako
gaztetxoek egindako ahalegina
eta pozez hartu zuten umeek jen-
dearen eskerrona.



Mozorroak janztearekin batera dantza ere egin zuten aisialdi taldeko kideek atzo. L.C.


MAPFRE



Nerea González Aranceta Delegada
Maitane Aguirre Gestora de Delegada

Av. Navarra s/n
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
gonzan@mapfre.com
maitagu@mapfre.com

943 65 38 35
 679 25 84 29



KAZKABARRA. Tolosako kaleen mozorroa aukeratu du aurten aisialdi taldeak. J.M.



KIRIKIÑO. Aladdin eta haren lagunak ekarri ditu Kirikiño taldeak aurtengo Astelenita egunera. J.M.



SAN BERNARDO. 'Coco' filmako pertsonaiez mozorrotu dira aurten San Bernardo taldekoak. L.C.



ATSEDENA. 'Dragoi bola' inspirazio iturri hartu eta mozorroa prestatu dute Atsedena taldekoak aurten. L.C.



TTENTTEK. Indiako doinu eta dantzak ekarri dituzte inauterietara Ttenttek aisialdi taldekoak. L.C.



TXIRIBITU. 'Charlie eta txokolate fabrika' filmeko pertsonaiak gorputzu dituzte Txiribitukoak. L.C.



Mozorro hoberenaren bila


Suite Baztan saria:
Bi pertsonarentzako gau bateko egonaldia:
Jakuzzidun logela eta gosariekin
Zigako Aldekoa Landetxearen eskutik
948 45 26 06 • www.aldekoa.es
Epaimahaiaren sari nagusia



Lau pertsonarentzako otordu bat
Zabala sagardotegian
Goiburu auzoa, Aduna
• 943 69 07 74 • rzabala.com
ataria.eus-eko
erabiltzaileen saria



Bi lagunentzako bi afari
Lurlan Bistrot dendan.
Plaza Berria 2, Tolosa
• 943 24 33 39 • lurlanbistrot.eus
Atarikideen saria



Sokaren muturrean dagoenari begira

Sokamuturrak zale asko biltzen ditu Plaza Berrian Zaldunitan, Astelenitan eta Asteartitan; 11:00etan izaten da hitzordua eta txaranga doinuekin batera salto eta brinkoak izaten dira nagusi



Plaza Berrian egiten dute sokamuturra Zaldunitan, Astelenitan eta Asteartitan, txaranga batek alaiturik. Atzokoan Txinparta elkarteko Polvo y Paja txaranga aritu zen eta gaur Kabilak joko du. I.G.L.

Hilberriak eta urteurrenak



**Edurne
Azurmendi
Urbizu**



*Gure elkartasunik
sentikorrena familiari*

Gazteluko EH Bildu

GAZTELU, 2020ko otsailaren 25a



**Edurne
Azurmendi
Urbizu**



Aitzol Gartzia gure lagunaren ama

*Zuen saminarekin bat egiten dugu
une latz hauetan*

Tolosako EH Bilduko udal taldea

GAZTELU, 2020ko otsailaren 25a



**Edurne
Azurmendi
Urbizu**



*Lurrak gozo har zaitzala.
Doluminak etxekoei*

Gazteluko Udala

GAZTELU, 2020ko otsailaren 25a

Mozorrotutako begiradak

Jokin Altuna eta Ladis Galartzak ezin izan dute partida irabazi Oinatz Bengoetxea eta Jon Mariezkurrenaren aurka; 22-19 amaitu da partida, mozorroz betetako Beotibarren

Eneritz Maiz Etxarri


Astelenitak Beotibar pilotalekua ere mozorrotu egiten du urtero. Hiru partidako jaialdia izan zen, eta bigarren partida haserako pilotalekua jendez bete zen.

Mozorro asko eta umore handia izan ziren frontoian nagusi. Zaletuak txoratzen ikusi zuten partida. Animo oihu asko egin zituzten, eta horietako asko eta asko Oinatz Bengoetxea aupatzeko izan ziren. Jaialdiko partida nagusian, Oinatz Bengoetxeak eta Jon Mariezkurrenak, Jokin Altuna eta Ladis Galartzaren aurka jokatu zuten, eta amezketarrak ezin izan zuen bere zaleen aurrean partida irabazi. 19. tantora aurretik iritsi baziren ere, ez zuten partida irabazten asmatu, 19 tantorekin konformatu behar izan zuten galtzaileek.

Oinatz Bengoetxeak partida amaiera ikusgarria egin zuen, eta partida irabazteko lana egin zuen; eta partida amaitzean lehertu egin zen Beotibar Bengoetxeak partida irabazi ostean.



Inauteri egunez kolorez betetzen da Beotibar, eta atzo bezala, gaurko partidetan ere mozorro ugari ikusiko da. ENERITZ MAIZ



Homologatu gabeko tituludun medikuen afera ari dira ikertzen

Fiskaltzak ikerketa bat abiarazi du Asuncion klinikan lanean ari diren medikuen egoera aztertzeko.

Erredakzioa Tolosa

EAEko fiskal nagusiak, Carmen Adanek, 2019an Asuncion klinikako medikuen inguruko salaketak jaso zituen, eta hori dela eta gaia Gipuzkoako Fiskaltzara bideratu du. Fiskaltza intrusismo ustezko delitu bat ari da iker-tzen, Tolosako Asuncion klinikan Espainian homologatuta ez dauden tituluak dituzten medikuak ari direlako lanean.

Fiskaltzak pasa den abenduan ireki zuen auzibidea, eta jada lekuko batzuk pasa dira Donostiako Epaitegitik.

%43K DU HOMOLOGAZIOA, TOPA-REN ARABERA

Tolosaldeko Osasun Publikoaren Alde koordinakundeak ere salatu izan du gaia.

Pasa den azaroan egin zuten publiko klinikako profesional medikuei buruzko ikerketa eta salatu zuten Asuncioneko hainbat mediku beharrezko homologaziorik gabe ari direla lanean.

Nabarmendu zuten, era berean, Osakidetzan anestesian eta erreanimazioan aritzen diren espezialista guztiek titulu homologatua duten bitartean, Tolosako Asuncion klinikan espezialisten %43k dutela homologazioa. Halaber, TOParen aldarri historikoetako bati ere egin zioten tarte, eta «Osakidetza Tolosaldearekin duen zor historikoa» gaitzetsi zuten, 70 milioi euro exijituz.

Otsailak 23, 24 eta 25 IRRATIA ZUZENEAN

11:00etan hasita
zuzeneko bereziak
San Frantzisko ondotik



107.6 fm
www.ataria.eus



ASTEARTEA, 2020KO OTSAILAK 25
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818, publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082, tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118, ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132, kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **902 82 02 01**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



EZ AISIALDI TALDEAK BAKARRIK

Astelenitan aisialdi taldeen txanda izaten da. Goizean goizetik hasten dira koreografiak dantzatzeko ikusleentzako, baina Astelenita hori baino gehiago ere bada. Mozorrotzeko eta kalea hartzeko egunak dira hauek, eta herritar guztiek jarri nahi izaten dute euren aletxoak. Atzokoan herri kirolen euskal federazioko kideak ere gerturatu ziren Tolosara, eta erakustaldi bikaina eskaini zuten San Frantzisko pasealeku inguruan. J.M.

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberrak...

www.ataria.eus · 107.6 fm ·

AGENDA

Inauteriak

TOLOSA.

06:00. Udai Txistulari Bandak Alborada joko du udaletxeko arkupe-tan, Berdura plazan eta Felipe Go-rri plazan.

08:00. Elkarreentako txarangek alaituta, Pattar zezena Zezen Plazan. Ondoren kalejira.

11:00. Plaza Berrian sokamuturra Kabila txarangek alaituta.

11:00. Karroza eta konpartsen irte-
era.

12:00. Plaza Berrian txarangen bil-kura; San Esteban, Sukalde, Arco Iris eta Txapel Haundi txarangen eskutik. Eurria bada, Berdura plazan. Ondoren kalejira Gaztelako Aterai-no. **15:45.** Udai Txistulari bandak, ohiturazko ibilbidea eginez, *Idiarena* pieza joko du.

16:00. Txapel Haundi, Sukalde, eta San Esteban txarangek Plaza Za-harretik zezen plazarako bidea egingo dute.

16:30. Zezenak zezen plazan; txarangek eta udai txistulari banda ari-tuko dira ikuskizuna alaitzen. Ondoren, kalejira.

19:00. Dantzaldia Berdura plazan Txapel Haundi, Sukalde eta San Es-teban txarangekin.

23:30. Incansables Zaharrak txarangen irteera.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa.

Leyre Lejeune Maset.

Euskal Herria kalea, 24.
943 6 732 74.

TOLOSA. Gauekoa.

Lurdes Azpiroz Galarza.
Larramendi, 6.

Telefonoa: 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giro kaskarragoa.

Fronte bat sartuko da goi-zaldean eta horrek goizean zapa-rrada batzuk utziko dizkigu. Ondo-ren, eguneko erdiko orduetan, giro lasaia izango dela dirudi eta arratsalde erditik aurrera berriz ere euritarako joera hartuko du. Hala ere, giro euritsua izaterik ez da es-
pero. Haizeak ipar-mendebaldetik joko du eta tenperatura altuena na-barmen jaitziko da, eguneko erdiko orduetan 13-15 graduan joaz goia.



Bihar. Tenperaturak behe-
ra egingo du eta euria egin-
go du, batez ere, goizean.

Egunak aurrera egin ahala, ater-tzen joango da. Elur maila 1.000 eta 1.200 metro artean egongo da eta ipar-mendebaldeko haizeak bizi joko du, eguneko lehen zatian ba-tez ere.

ATARIA IRRATIA

11:00. San Frantzisko pasealekutik, artxioboaren ondoan, irrati zuzene-koa.

TOLOSALDEKO ATARIA-k ez du bere gain hartzen egunkarian adierazi-tako esanen eta iritzien erantzuki-zunik.

Lagundu iezaguzu Ataria proiektua indartzen

Egin zaitez

Atarikide